

2015/7/20



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAURRENTZAKO GOIZ TXOKOA (2015-16 IKASTURTEA)

Datorren ikasturterako goiz txokoetarako talde bat osatuko da.

Data: Urritik-Ekainera.

Ordutegia: 7.30tik 9.00ra * edo 8.00tik 9.00ra ** haur txokoa.

Kuota: *55€ gehienez hilabetean. (45€-12 hilabetez ordainduta)

**35€ gehienez hilabetean. (25€-12 hilabetez ordainduta)

Haur kopurua: 6 haur gehienez (2 urtekoak).

11 haur gehienez talde nahasian (2 urtekoak gehienez 4).

Zerbitzuaren gainontzeko datuak eta baldintzak honako hauek izango dira:

- Fidantza moduan, azken 2 hilabeteen kuotak ordaindu beharko dira.
- Ikasturte **OSORAKO** izena eman behar da.
- Izen emateko epea: Irailak 15.

Telefonoz 615 70 14 46 Arkaitz

e-posta bidez: iarkaitz@hotmail.com

Honekin batera jakinarazten da langile bat kontratatuko dela zerbitzu hau betetzeko eta deialdia egiten dela interesa dutenek izen eman dezaten hautaketa elkarrizketak egiteko. Magisteritza ikasketak edo hurrekin esperientzia baloratuko dira (gurasoak ere izan daitezke). Euskalduna izatea eta herrian erroldatuta egotea derrigorrezkoa izango da. Izena emateko telefonoa 943453334 edo e-posta kiriketana@eusklalnet.net erabili "Adunako haur txokoa" erreferentzia aipatuz.

Zalantzak argitzeko bilera bat egingo da iraila hasieran.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

KONPOSTAJERAKO TXABOLA BERRIA

Kirol pistaren ondoko auzo konpostajerako txabola berria prest dago. Txabolak 6 tapa dauzka eta estrukturatearentzako beste txiki bat. 3 tapa errepide aldera daude eta beste hiruak kirol pista aldera. Errepide aldera daudenetan bota beharko da materia organikoa, atzekaldekoak itxita egongo baitira.


Oporretatik bueltan iturria jarriko da kubo marroia garbitzeko.

Tapa bakoitzak amortiguadore hidrauliko batzuk dauzka eta bera bakarrik irekita mantentzen da. Organikoa bota ondoren berriz ere tapa jeitsi mesedez.

Saiatu hiru zuloetatik hutseen degoena erabiltzen, denak modu berdinean betetzen joan daitezten.

Arazorik izan ezkeru deitu Udaletxera edo aguazilarekin hitz egin.

Bihar asteartea (hilak 21) hasi daiteke txabola erabiltzen.



Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net